

Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2017ko abenduaren 25etik 29rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ESPAINIA ETA ALEMANIAKO KPIa



Datuaren analisisia

Espainiako Kontsumoko Prezioen Indizeak % 0,1 egin zuen gora abenduan aurreko hilarekin alderatuta, baina bere urte arteko tasak bost hamarren egin zuen behera, % 1,2raino, urteko bere mugarik apalena. Alemanian, urte arteko inflazio-tasa harmonizatua % 1,6raino heldu zen abenduan, eta % 0,8koa izan zen aurreko hilaren aldean. Ez dago presio inflazionistarik, eta horrek pizgarrien programari eusteko aukera emango dio EBZri.

Adierazlearen azalpena


KPIa hilero prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA

CONFERENCE BOARD

Ultimo rep.:	122.10	-6.50
Conference Board Consumer Confidence SA 1985=100	122.10	-6.50
Conference Board Consumer Confidence Present Situation SA 1985=100	156.60	+1.70
Conference Board Consumer Confidence Expectations SA 1985=100	99.10	-11.90



Datuaren analisia

Conference Boarden AEBetako kontsumitzailearen konfiantza indizeak atzera egin zuen abenduan, azaroan hobera egin ondoren. Adierazlea 122,1 puntutara jaitsi zen, aurreko 128,6 puntuetatik. Gaur egungo egoeraren indizea 154,9tik 156,6 puntura igo zen, eta itxaropenen indizeak, aldiz, 111,0tik 99,1era erori zen.


Datozen hiletarako enpleguaren eta negozioaren inguruko aurreikuspen ez hain baikorrek eragin dute konfiantzaren beherakada. Hala ere, maila altuetan dago oraindik.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen konfiantzaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan kontsumitzaileei egindako inkesta batean jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoren uzkurdura eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia

Japoniako industria-ekoizpena ehuneko 0,6 hazi zen azaroan. Hilabete arteko bigarren igoera da jarraian, urrian adierazleak izan zuen % 0,5eko igoeraren ondoren. 2016ko azaroarekin alderatuta, industria-ekoizpenak % 3,7 egin zuen gora. Erabilera orokorreko makinak, osagai eta gailu elektronikoak eta petrolioak eta ikatza izan ziren hil arteko igoerari ekarpen handiena egin zioten industriak. Industria-jarduera hobera egiten ari da oraindik, kanpo sektorearen eskariari esker.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
01/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	56.2
01/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	59.3
01/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	63.3
01/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	60.6
01/02	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	55.0
01/03	Espainia	Hileko langabezia-tasa	-58.9
01/03	Alemania	Langabezia-tasa	% 5.5
01/03	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
01/03	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	58.2
01/04	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
01/04	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
01/04	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	51.8
01/04	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	54.6
01/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	55.4
01/04	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	59.4
01/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	60.0
01/04	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.8
01/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	58.7
01/04	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	56.5
01/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	58.0
01/04	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	190k
01/04	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	248k
01/04	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	52.4
01/04	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
01/05	Japonia	PMI Nikkei zerbitzuak Japonia	--
01/05	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
01/05	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1,2
01/05	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1,4
01/05	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4,1
01/05	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$48.3b
01/05	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	57.6
01/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--

BURTSAK:

Urteko azken astean, Burtsako indizeen balantzea pixka bat negatiboa izan zen AEBetan eta Europan, Londreseko burtsan izan ezik, itxiera positiboa izan baitzuen. Asian, itxierak mistoak izan ziren. Astea lasaia izan zen, erreferentzia makroekonomiko esanguratsu gutxiarekin, eta negoziazio-bolumen urriarekin. Europan, EBZren Aldizkari Ekonomikoa argitaratu zen. Bertan, hedapen ekonomikoaren erritmo altua eta hazkunde-aurreikuspenetan eman den hobekuntza argia nabarmendu ziren. AEBetan, Txinarekin sinatutako merkataritza-hitzarmenaren inguruko posizionamendua gogortu lezake Trumpek, Asiako herrialdeak Ipar Korearekin erakutsitako jarrera epelaren ondorioz. Sektoreei begiratuta, teknologikoa izan zen emaitza okerrenak lortu zituenena, % 1,29 behera egin ondoren. Farmazeutikoak, kontsumokoak eta oinarriko baliabideenak, aldiz, emaitza onenak izan zituzten: % 0,12, % 0,35 eta % 2,46 hurrenez hurren.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2017
MSCI WORLD (Local)	1.586,20	-0,31	16,27
IBEX 35	10.043,90	-1,36	7,40
DJ EURO STOXX 50	3.503,96	-1,39	6,49
DJ STOXX 50	3.177,84	-0,30	5,56
FTSE	7.687,77	1,25	7,63
S&P 500	2.673,61	-0,36	19,42
Dow Jones	24.719,22	-0,14	25,08
NASDAQ	6.903,39	-0,81	28,24
NIKKEI 225	22.764,94	-0,60	19,10
MSCI GORAKORRAK (Lo)	60.878,90	1,02	27,76
MEXBOL	49.354,42	2,00	8,13
BOVESPA	76.402,08	1,62	26,86
SHANGHAI	3.463,48	0,30	6,58
Erusia Dto Moskua	1.151,42	1,65	0,18

ERRENTA FINKOIA:

Aste lasaia Europako core zor-merkatuan, non interes-tasek ia ez zuten aldaketarik izan. Zor periferikoan eman ziren mugimendurik handienak, eta Espainiako hamar urterako bonuak 10 op egin zuen gora, % 1,57raino. Espainiako arrisku-prima 114 punturaino igo zen. AEBetan, erosketak izan ziren nagusi. Hamar urterako bonuaren errentagarritasuna 0 op jaitsi zen, % 2,41eraino. Kreditu-merkatuan, aldaketa gutxi.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,63	0,00	0,14
ESPAINIA 2 URTE	-0,35	0,02	-0,07
AEB 2 URTE	1,88	-0,01	0,69
ALEMANIA 10 URTE	0,43	0,01	0,22
ESPAINIA 10 URTE	1,57	0,10	0,18
AEB 10 URTE	2,41	-0,08	-0,04
ALEMANIA 30 URTE	1,26	0,02	0,32
ESPAINIA 30 URTE	2,85	0,12	0,23
AEB 30 URTE	2,74	-0,09	-0,33
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	44,92	-0,35	-27,12
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	232,43	1,84	-56,27

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroak % 1,43ko balioa irabazi zuen dolarraren aldean, eta trukea 1,20\$/€ izan zen. Europako monetak ere balioa irabazi zuen Yenaren eta Liberaren aurrean. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 3,28 handitu zen. Libiako oliobide baten eztandak, Ipar Itsasoko oliobidearen geldialdiak, eta Iraneko gobernuaren aurkako protesten hasierak kotizazioa bultzatzeko balio izan zuten. Urrearen balioa, bestetik, % 2,18 igo zen, 1.303,05 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Asteakoa	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,20	1,43	13,99
Yena / Euroa	135,36	0,83	10,01
Libera / Euroa	0,89	0,36	4,03
Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	66,82	3,28	20,59
Urrea	1.303,05	2,18	13,09

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.